BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

54. zk. 2023, martxoak 17. Ostirala 1. orr.

I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Ekonomia Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 27/2023 FORU DEKRETUA, martxoaren 14koa. Honen bidez, Bilbao-Bizkaia helmugan mugikortasun turistiko jasangarria bultzatzeko norgehiagokarik gabeko araubidean emango diren dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2023 urterako.

I

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: ekintzailetza eta azelerazioa; berrikuntza eta lehiakortasuna; erakartzea eta interkonexioa; lurralde-oreka, eta talentua eta ezagutza; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Misio horren esparruan, onartu nahi den foru dekretuaren xedea da mugikortasun turistiko jasangarrirako irtenbide integral eta zehatz bat planteatzea, lurraldeko errepide, oinezkoentzako bide eta bizikleta bideetan seinale turistikoen instalazioa zehaztuz eta mugatuz, Bizkaia osoan zehar bisitarien fluxuen banaketa hobetzeko, jarduera turistikoak dakartzan onura sozial eta ekonomikoak maximizatuz eta ingurumen edo gizarte mailako inpaktu negatibo potentzialak minimizatuz, eta honako helburu hauekin:

— Nabarmen egitea Bizkaian turismoarentzat erakargarrien diren alderdiak probintziako bide desberdinetan, hala nola errepideak, oinezkoentzako bideak eta bizikleta-bideak, horretarako sarbide jasangarriago, intuitiboago eta sinpleagoak baliatzea.

— Lurralde osoan turismo-fluxuak oreka daitezen lortzea, turismo- jardueraren onura sozial eta ekonomikoak Bizkaiko eskualde eta udalerri guztietara iristea

— Natura- eta kultura-baliabideetara eta aisialdikoetara iristeko modu berri jasangarriagoak azpimarratzea, eta, ondorioz, garraio publikoarekin konbinatutako oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna ere sartzea, errepideko joan-etorrien eta bestelako garraiobide kutsakorragoen ordezko gisa.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzen lerro bat aurreikusten du turismo-baliabide nagusietan seinaleztapen turistikoa ezartzeko, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan, urtero, horiek gauzatzeko behar diren kredituak esleitzen dira. Horretarako, beharrezkoa da horiek arautzen dituen araudia ezartzea. Dirulaguntzen ildo horren helburua da turismo-korridoreak sortzea baliabide turistiko nagusiak seinaleztatuz, eta Bizkaiko Plan Estrategiko horren helburu estrategikoa lortzen laguntzen du, alegia lurralde erakargarria eta konektatua erdiestea.

Dekretuak, beraz, lurraldeko hainbat bidetan (errepideak, hiri-bideak eta landa-eremukoak, bidezidorrak, bizikleta-ibilbideak edo antzekoak) katalogatutako baliabide turistikoak seinaleztatzeko proiektuak egikaritzea edo azterlanak egitea sustatzen du, eta, horrela, Plan Estrategikoan adierazitako helburua betetzen da. Baliabide turistikoak seinaleztatzea Bizkaiko erakargarritasun turistiko nagusiei balioa emateko, lurralde osoko fluxu turistikoak orekatzeko eta kultura-, natura- eta aisialdi-baliabideetara iristeko modu iraunkorragoetan eragiteko aukera emango duen tresna da. Horiek guztiak PANen sartuta daude eta dekretuaren 1. oinarrian jasotzen dira.

Horren bitartez, abangoardiako gizarte bat sustatu nahi da, lurralde erakargarria, beste lurralde eta gizarte batzuei lotua, Bizkaiaren kanpo-irudia eta gure probintziak na-

eek: BAO-2023a054-(I-310)

zioarteko foro, azoka eta ekitaldietan duen presentzia indartuz eta, horrela, nazioartean duen erakargarritasuna indartuz.

Estrategia horri esker, errazago erakarriko dira inbertsioa, talentua, teknologia, bisitariak eta balio erantsia ematen duten ekitaldiak. Egitasmo horrek aurrera egiten du Bizkaia Europako hegoaldeko ardatz atlantikoan aitzindari den ekonomia-, turismo- eta finantza-zentro gisa kokatzeko bidean, aliantzak indartuz, egungo gobernantza-eredua sendotuz eta turismoaren zeharkakotasuna sustatuz.

Horrela, ekosistema turistikoko eragileen arteko lankidetza sustatzen da, berrikuntzaren eta sormenaren bidez lehiakortasuna indartuz eta adimen turistikoaren eredu propioa indartuz, sektorea digitalki eraldaturik; aldi berean, jarduera turistikoa modu pertsonalizatuan komunikatzen, sustatzen eta merkaturatzen du, bisitarien interes eta beharretara egokituta.

Estrategiaren formulazioak pertsonengana bideratua egoten jarraitu behar du, eta balio erantsi handiko esperientziak eskaini bisitariari; iraunkortasunerantz bideratua, eta turismoaren inpaktuak optimizatu lankidetza-ekintzen eta herritarren parte-hartzearen bidez, horrela gizartea eta turismoa integratu ahal izateko eta, azken finean, gizartearen ongizatea eta gogobetetasuna lortzen laguntzeko, iritsi nahi diren helburuak lortzea bermatuz.

Estrategia berri honek makulu izan nahi du helmugari lehiakorragoa izaten laguntzeko, ibilbide-orri eraginkor eta berri baten bitartez jardueren atomizazioa murriztu eta arlo publiko nahiz pribatuko ahaleginak batera joan daitezen. 2022ko otsailean aurkeztu zen. Sei printzipio nagusi ditu:

— Ekosistemaren barruko lankidetza.

— Pertsonak xede dituen orientazioa.

— Berdintasuna eta aniztasuna.

— Erantzukizuna eta iraunkortasuna.

— Digitalizazioa eta adimen turistikoa.

— Berrikuntza eta sormena.

Eta, aldi berean, zortzi helburu hartu ditu asmotan 2030erako:

— Inpaktu sozioekonomikoa sortzea modu iraunkor batean.

— Enpresa-sarearen lehiakortasuna hobetzea.

— Bisitariak erakartzea eta helmuga modu orekatu eta jasangarrian garatzea.

— Nazioarteko posizionamendua sendotzea eta helmugaren irudia indartzea.

— Pertsona guztien esperientzia eta gogobetetasuna hobetzea.

— Helmuga digitalki eraldatzea.

— Ekosistema eta adimen turistikoaren eredua indartzea.

Helmuga sasoi eta leku jakin batzuei lotuta egon ez dadin, eta turismo-fluxuak ondo banatu daitezen lurraldean zehar, funtsezkoa da baliabide turistikoak sustatzeko estrategia bat garatzea, baliabideon dispertsioa kontuan hartuz, eta bermatzea seinale turistikoek ondo bideratzen dituztela bisitariak, horrela Bizkai osoan zehar sortzeko, ahal den neurrian, ibilbide eta korridore turistiko iraunkorrak.

Horregatik, Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusitik, lan sakona egin da zehaztu ahal izateko zein baliabide turistiko komeni den sustatzea Bizkaiko errepideetan zehar, bisitarien fluxua helmuga osoan banatzeko, eta jarduera turistikoa lurralde-garapenarekin koordinatuta egon dadin bultzatzeko.

Proposamenaren helburuak alderdi hauek landu nahi ditu:

— Helmugara heltzeko modua erraztea eta Bizkaiko bisitariaren esperientzia hobetzea.

— Lurraldeko turismo-baliabideak ikusaraztea eta nabarmentzea, modu arrazionalean eta bide-azpiegituren erabilera arruntarekin bateragarri eginez.

— Turismo-fluxuaren banaketa bultzatzea (eskaera).

eek: BAO-2023a054-(I-310)

— Lurraldearen garapen ekonomikoa modu orekatuan sendotzea (eskaintza).

Horretarako, funtsezkoa da desberdintzea helmuga turistikoa konfiguratzen duten elementu hauek:

— Helmuga turistikoak. Bizkaia lurralde txikia da, baina aniztasun handikoa. Hiru erreferentzia geografiko ditu, turistari aukera ematen diotenak lurraldean zehar zein alderdi bisitatu daitezkeen garbi identifikatzeko: metropolialdea, itsasbazterra eta mendiak.

— Baliabide turistikoak. Baliabide turistikoak turismoa erakarri eta haren kontsumoa bultza dezaketen ondasun materialak nahiz immaterialak dira, izan elementu fisikoak edo naturari loturikoak, sozialak zein kulturalak, bai eta establezimenduen azpiegiturak eta turismora bideraturiko zerbitzuak ere.

Proposamen honetarako, iragazi egin dira kultura, ingurumen, eta aisialdiaren ikuspegitik interesgarri diren baliabideak, horrela baliabide turistikoen inbentario bat izateko, halakoetarako beharrezkoa baita errepide, bidezidor, bizikleta-ibilbide eta gisakoen Sustapen turistikorako proiektu bat. Garapen-fasean, modu aktiboan lan egin da Aldundiko beste sail batzuekin, bai eta Bizkaiko eskualdeetako eta udalerrietako turismo-kudeaketako erakundeekin ere. Horiekin guztiekin, baliabideen inbentario turistiko bat garatu da, azpimarratzeko zer baliabidek duten, kultura, natura edo aisialdiren ikuspegitik erakargarri izanik, berez turismoa erakartzeko gaitasuna.

Horren emaitza, 85 baliabide turistikoko inbentarioa da.

Behin inbentarioa eginik, baliabideak iragazteko sistema bat prestatzen da jakiteko zein baliabideri eman lehentasuna errepide, bidezidor, bizikleta-ibilbide eta gisakoetan, horrela lurraldean zehar zenbait korridore turistiko sortzeko.

Inbentarioko 85 elementuetatik lehentasun-zerrenda bat egiteko zenbait mailatan banatua, honako irizpideak aplikatu dira:

— Seinaleztapen-premia, kontuan izanda haien kokalekua eta errepideetako egungo ikusgaitasuna.

— Lurraldearen oreka, banaketa ekitatiboa lortzeko lurraldeko eskualdeen artean.

— Baliabidearen balio estrategikoa, edo hobeto esanda, 2030 Estrategiarako daukan esanahia.

— Baliabidearen balio taktikoa, Bizkaian garapen ekonomiko orekatua sortzeko.

— Baliabidearen balio operazionala, kontuan izanda baliabidea kudeatzeko eskumena.

Lan hori guztia baliabideen zerrenda batean islatzen da, non baliabideak seinaleztapen- premiaren arabera lehenesten baitira, beti ere lurraldearen oreka lortu nahian, eta helmugarentzat duten balio estrategiko, taktiko eta operatiboaren arabera sailkatzen. Baliabide horien balioa errazago nabarmentzeko, ikus daiteke bost multzotan lehenetsi direla, eta, bloke bakoitzaren barruan, azpisailkapen bat egin dela, herri, eskualde, helmuga turistiko, tipologia eta seinaleztatzeko bidearen arabera.

Egindako analisiaren harira, eta turismo-fluxua lurralde guztian banatu eta baliabideei buruz irudi erakargarriago bat eskaintzeko helburuarekin, proposatzen dena da seinaleztatu beharreko ikono estrategikoenak (10) bereizten lan egitea. Horiei, «Bizkaiko korridore turistikoak» deituko diegu.

Ekonomia Sustatzeko Sailak lurraldean garatzen den jarduera turistikoaren inguruan aurten egindako hausnarketaren printzipioak hiru dira: erantzukizuna, jasangarritasuna eta espazio turistikoetara heltzeko mugikortasun turistikoaren efizientzia, aztarna ekologikoa murrizteko. Horren guztiaren helburua, berriz, inpaktu sozioekonomiko iraunkorra sortzea da.

Hala, bada, mugikortasun turistiko jasangarriko beste modu batzuk sortzen dira, dekretu honetan bultzatzen eta jasotzen direnak, hala nola oinezkoen eta txirrindularien bideak, turismo adimentsuago eta lehiakorrago batera garamatzatenak.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen denez, foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetza ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenekin bat etorriz.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak, Ekonomia Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onartzen duenak, Ekonomia Sustatzeko Sailari esleitzen dio Bizkaiaren irudia kanpoan sustatzearekin eta turismoa sustatzearekin zerikusia duten jarduera guztiak bultzatzeko eta garatzeko jarduna; Bizkaia inbertsioak, talentua, bisitariak eta ekintzak erakartzeko aukera ematen duen lurralde gisa aurkeztea nazioarte mailan, eta Bizkaiak lehentasunezkoak diren nazioarteko sareetan parte hartzea sustatzea.

III

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa.
5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
6. Legezkotasunari buruzko txostena.

Dekretu honen bidez arautzen diren laguntzak norgehiagokarik gabeko prozeduraren bidez emango dira, beren izaera eta helburua kontuan hartuta; Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20 artikuluan aurrez ikusita dago prozedura hori.

Laguntzaren beharra sortzen da, batetik, jarduera turistikoak duen eragin positiboa modu orekatuan banatu behar delako Bizkaian zehar, eta, bestetik, erabiltzaileei esperientzia erakargarriagoa eta kalitate handiagokoa eskaini behar zaielako. Horretarako, funtsezkoa da errepideetan, hiri-bideetan, landa-bideetan, oinezkoentzako bideetan eta txirrindularientzako bideetan seinaleztapen turistikoa optimizatzen eta hobetzen duten politikak bultzatzea.

Lagundu beharreko jarduketen izaera bereziak zaildu egiten du balorazio-irizpide objektibo eta homogeneoak ezartzea, modua ematen dutenak aurkeztutako eskabideak aztertu eta sailkatu eta, ordenatu ondoren, lehentasun-hurrenkera batean ezartzeko. Hori dela eta, konkurrentzia librearen salbuespenezko araubidera jotzen da.

Lehia askearen araubide hori diru-laguntzaren helburu eta izaerarekin justifikatzen da; hau da, lurraldean seinaleztapena abian jartzea sustatzearekin, turismo-jarduera Bizkaia osoan modu jasangarrian banatzeko helburuak lortzeko. Horretarako, foru-politikak behar dira, batez ere administrazio publikoen eta landa-garapeneko elkarteen bidez inplementatzeko, eremu pribatuak ez baitu esparru horretan jarduten. Horregatik, ez dago lehiakortasunik baliabide turistikoak seinaleztatzeko orduan, erakunde bakoitza bere eragin-eremuaz edo eskualdeaz arduratzen da soilik.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta

eek: BAO-2023a054-(I-310)

emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

IV

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak ez dira Estatuaren laguntzak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta hain zuzen ere lehia faltsutzen ez dutelako edo faltsutzeko mehatxua egiten ez dutelako ez dira onuragarriak enpresa batentzat, eta ez diete laguntzen ekoizpen edo enpresa jakin batzuei beste batzuen kaltetan.

V

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluak ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko martxoaren 14ko bileran aztertu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—*Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea*

2023 urterako Bilbao-Bizkaia helmugan mugikortasun turistiko iraunkorra bultzatzeko konkurrentziaren librearen araubidearen arabera emango diren dirulaguntza-programako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Xedapen Gehigarri Bakarra.—*Izaera pertsonaleko datuen babesa*

1. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/ EE Zuzentaraua (datuen babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen duena; eta 3/2018 Lege Or-

eek: BAO-2023a054-(I-310)

ganikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

2. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

3. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

4. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko («ahaztua izateko eskubidea»), aurkaratzeko, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebokatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa).

XEDAPEN IRAGANKORRA

Xedapen Iragankor Bakarra.— *Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2022 Foru Dekretua, apirilaren 26koa, norgehiagokaren araubidean 2022 ekitaldian Bilbao-Bizkaia jomugan mugikortasun turistiko jasangarrirako dirulaguntzen programei buruzko oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituena, aplikatzea*

Xedapen iragankor honetan adierazitako araudiaren babesean aurkeztutako eskaeren ondoriozko itzultze-prozedurak, zehapen-prozedurak, errekurtsoak, berrikuspenak eta bestelako gorabeherak foru-dekretu horretan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen indargabetzaile bakarra.— *Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2022 Foru Dekretua, apirilaren 26koa, norgehiagokaren araubidean 2022 ekitaldian Bilbao-Bizkaia jomugan mugikortasun turistiko jasangarrirako dirulaguntzen programei buruzko oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituena, indargabetzea*

Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko da Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 26ko 59/2022 Foru Dekretua, zeinaren bidez onartzen baitira Bilbao-Bizkaia helmugan mugikortasun turistiko jasangarria bultzatzeko norgehiagokarik gabeko araubidean emango diren dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena, 2022ko ekitaldirako; hala ere, aplikatu daiteke beraren indarraldiaren barruan sortutako egoeretan, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoarekin bat.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehena.— *Ahalmenak eskuordetzea*

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen

eek: BAO-2023a054-(I-310)

32.4 artikuluan jasotako kasua gertatzen bada foru-agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko.

3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

Azken Xedapenetako Bigarrena.— *Indarrean jartzea*

1. Foru Dekretu honen bidez onetsitako oinarri arautzaileak indarrean jarriko dira «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu ondoren. Zehazki, aldizkari horretan argitaratzen denean batera onetsi den deialdiaren zatia.

2. Foru Dekretu honen bidez onetsitako deialdiak ondorioak izango ditu deialdiaren zatia «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunetik aurrera.

Bilbon, 2023ko martxoaren 14an.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,
AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

eek: BAO-2023a054-(I-310)

OINARRI ARAUTZAILEAK: BILBO-BIZKAIAN 2023KO EKITALDIAN MUGIKORTASUN TURISTIKO IRAUNKORRERA BIDERATURIKO DIRULAGUNTZEN PROGRAMA

AURKIBIDEA

I. titulua.—*Xedapen orokorrak.*

1. oinarria.—*Dirulaguntzaren xedea.*
2. oinarria.—*Definizioak.*
3. oinarria.—*Dirulaguntzaren onuradunak.*
4. oinarria.—*Diruz lagundu daitekeen egitatea.*
5. oinarria.—*Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*
6. oinarria.—*Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*
7. oinarria.—*Aurrekontuko zuzkidura.*

II. titulua.—*Araubide juridikoa.*

8. oinarria.—*Araubide juridikoa.*
9. oinarria.—*Organo eskudunak.*
10. oinarria.—*Arau-hausteak eta zehapenak.*
11. oinarria.—*Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.*
12. oinarria.—*Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.*

III. titulua.—*Dirulaguntzak emateko prozedura.*

13. oinarria.—*Dirulaguntza eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea, eta ondorengo izapideak.*
14. oinarria.—*Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa.*
15. oinarria.—*Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*
16. oinarria.—*Dirulaguntza emateko prozedura.*
17. oinarria.—*Esleipen ekonomikorako jarraibideak. Intzidentzia-faktoreak.*
18. oinarria.—*Ebazpena.*
19. oinarria.—*Errekurtsoak.*
20. oinarria.—*Dirulaguntzari uko egitea.*
21. oinarria.—*Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.*
22. oinarria.—*Emandako dirulaguntzen publizitatea.*
23. oinarria.—*Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.*
24. oinarria.—*Jakinarazpen elektronikoa.*

IV. titulua.—*Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola.*

25. oinarria.—*Gauzatzeko epea.*
26. oinarria.—*Justifikazio-epea.*
27. oinarria.—*Azpikontratazioaren baldintzak.*
28. oinarria.—*Dirulaguntzak justifikatzea.*
29. oinarria.—*Dirulaguntza ordaintzea.*
30. oinarria.—*Laguntzen bateragarritasuna.*
31. oinarria.—*Pertsona onuradunen beste betebehar batzuk.*

Eranskina.—*Baliabide turistikoen lehentasuna.*

eek: BAO-2023a054-(I-310)

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria.— *Dirulaguntzaren helburua*

Dirulaguntza-programa honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

a) Nabarmen egitea Bizkaian turismoarentzat erakargarrien diren alderdiak probintziako bide desberdinetan, hala nola errepideak, oinezkoentzako bideak eta bizikleta-bideak, horretarako sarbide jasangarriago, intuitiboago eta sinpleagoak baliatzea.

b) Lurralde osoan turismo-fluxuak oreka daitezen lortzea, turismo- jardueraren onura sozial eta ekonomikoak Bizkaiko eskualde eta udalerri guztietara iristea.

c) Natura- eta kultura-baliabideetara eta aisialdikoetara iristeko modu berri jasangarriagoak azpimarratzea, eta, ondorioz, garraio publikoarekin konbinatutako oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna ere sartzea, errepideko joan-etorrien eta bestelako garraiobide kutsakorragoen ordezko gisa.

2. oinarria.— *Definizioak*

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, honela ulertu behar da:

1. Seinalizazioa: seinale ofizialtzat joko dira errepide foral eta lokaletan jartzen diren panelak. Oinezkoentzako, bidezidorretako, bizikleta-ibilbideetarako edo antzekoetarako seinaleen artean, halako lekuetan instalatutako seinaleak sar daitezke, bai eta beste informazio- eta interpretazio-sistema batzuk ere, modua ematen dutenak fluxua errazago bideratzeko baliabide turistikora sartu, bertan aparkatu, hura bisitatu edo bertatik irteteko.

2. Mugikortasun turistiko iraunkorra: mugikortasun turistiko iraunkortzat hartzen dira espazio turistikoetara sartzeko modu batzuk aztarna ekologikoa murrizten dutenak, motorizatu gabeko garraio-moduak sustatzen dituztenak eta gizarte- eta ingurumen-arazoei aurre egiten.

3. Kudeaketa turistikoko enteak: Kudeaketa turistikoko enteak dira Bizkaiko Foru Aldundiaren lidergo pean eta hark sustatzen dituen jarduketa-planen arabera Bilbao-Bizkaia jomugaren garapen turistiko jasangarria bultzatzen duten erakundeak. Eskualde- edo udalerri-mailakoak izan daitezke.

4. Eskualde-mailako kudeaketa turistikoko enteak: jarduketa-eremutzat eskualdea edo udalaz gaindiko gunea duten erakundeak, interes eta xede turistikoek administrazio-mugak gainditzen dituztelako. Bilbao-Bizkaian garapen turistiko jasangarria bermatzeko, ente horiek lurraldeko udalerri desberdinetan turismoaren kudeaketa koordinatu behar dute eta langile prestatuak izango dituzte, jarduera turistikoak garatzeko aurrekontuaz gain. Landa-turismo jasangarria sustatu nahi da, Landa Garapenari buruzko ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 5. artikuluan ezarritako landa-garapeneko politiken helburuekin bat etorriz – Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan jarduera ekonomikoa sustatzea eta dibertsifikatzea B) eremuaren VI. epigrafea– eta landa-inguruneko erakunde-politiken helburu sektorialekin bat etorriz – landa-ingurunearen ehun ekonomikoa dibertsifikatzeari eta enplegua sortzeari dagokienez D) ataleko VI. epigrafea–.

   Udal-eremuko kudeaketa turistikoko enteak: Bilbo-Bizkaia helmugako turismo-garapenerako kudeaketa-egiturak dituzten Bizkaiko udalak, eskualde-mailako kudeaketa-erakunde bakar batean ere sartuta ez daudenak. Urduñaz gain, turismoa kudeatzeko udal-erakunde horiek Bilboko metropoli-ingurunekoak dira. Urduña, Getxo, Santurtzi, Portugalete Barakaldo eta Sestao dira.

6. Udal turistikoak: Bizkaiko udalak baldin eta kudeaketa turistikorako gaitasuna badute: teknikariak, aurrekontua, jarduerak eta inbertsioak, bai eta tokiko turismo-bulego bat ere, modu iraunkorrean irekia; gainera, jarduera eskualdeko kudeaketa turistikoko ente batekin koordinatuko dute.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

3. oinarria.— *Dirulaguntzaren onuradunak*

1. Dirulaguntzen onuradun izan daitezke honako erakunde hauek:

a) Kudeaketa turistikoko enteak, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udal turistikoak gehi udal horien mendeko erakunde publikoak.

b) Enpresak, Eranskineko baliabide turistikoen titularrak edo kudeatzaileak badira edo baliabide turistikoak seinaleztatu eta sustatzeko baimena badute. Horrez gain, ezinbestekoa izango da sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan egotea.

2. Aurreko atalean adierazitako erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

a) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean, 38/2003 Legea) 13.3 bis artikuluaren arabera, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen (aurrerantzean 3/2004 Legea) aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.

b) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere).

Betekizun guztiak bete beharko dira eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta eman nahiz ordainketak egin eta proiektua gauzatzez amaitzen denera arte eutsi beharko zaie.

3. Dirulaguntzaren onuraduntzat joko da jarduerak egiten dituen erakundea, betiere Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31eko 5/2005 Foru Arauaren 10.1 artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz, emateko arrazoia badago. Ez dira onartuko onuradun izateko eskakizunak ez betetzeagatik, beste batzuen pantaila diren erakundeak edo hirugarrenen artean ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko bitartekari hutsak direnak, 27. oinarrian azpikontrataziorako ezartzen denaren kalterik gabe.

4. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan (aurrerantzean 4/2005 Legea) adierazitako egoeretako batean dauden erakunde publikoak zein pribatuak.

b) Pertsona erakunde publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

c) Udalen edo Foruaren sozietate publikoak edo Eusko Jaurlaritzaren mendekoak, oinarri honetako aurreko 1.a) puntuan onetsitako erakunde publikoak izan ezik.

d) Laguntza bat legez kontrakotzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain dauden pertsonak edo erakundeak.

4. oinarria.— *Diruz lagundu daitekeen egitatea*

1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatetzat:

a) Dekretu honen Eranskinean katalogatuta dauden baliabide turistikoak seinaleztatzeko proiektuak gauzatzea honako bide hauetan:

1) Foru errepideetan.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

2) Toki-eskumeneko guneetan: oinezkoentzako hiriguneetan edo landaguneetan.

3) Bidezidorretan, bizikleta-ibilbideetan edo antzekoetan.

b) Seinaleztatze-azterlanak garatzea, Eranskinean katalogatuta dauden baliabide turistikoen inguruan mugikortasun turistiko jasangarrirako aukerak diseinatu, hobetu edo ebaluatzen badituzte.

2. Seinaleztapen-proiektu hauek garatzea ez da diruz lagunduko:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide/bide saretik kanpo ezartzen direnak, Bizkaiko enklabe batean dauden Top 10 baliabide turistikoak seinaleztatzeko proiektuen kasuan izan ezik.

b) Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo dauden edo Seinaleztapen Turistikoaren Proposamen Estrategikoan - Eranskinean jasota- ez dauden baliabideei dagozkienak.

c) Ostalaritzako, ostatuko, jatetxeko edo antzeko establezimendu pribatuak seinaleztatu nahi dituztenak.

d) Lurraldean seinale turistikoak mantentzea helburu dutenak.

3. Edozein kasutan, foru titulartasuneko bideei eragiten dieten seinaleztapen-proiektuak gauzatzean bat etorri beharko dira «Bizkaiko Errepideei buruzko martxoaren 24ko 2/2011 Foru Arauaren III. eta IV. bitarteko tituluak garatzen dituen erregelamenduan», Bizkaiko Errepideei buruzko urriaren 20ko 5/2021 Foru Arauan eta gainerako arau aplikagarrietan (seinaleztapen bertikalari buruzko 8.1.IC instrukzioa, SISTHO eskuliburua) ezartzen denarekin. Horretarako, obrak egiteko baimena eskatu beharko da Bizkaiko Foru Aldundiaren Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiaren Ustiapen Zerbitzuan (Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila).

Udal-bideei eta/edo bide pribatuei eragiten dizkieten seinaleztapen-proiektuak gauzatzeko eta baimen egokia eskuratu beharko da.

4. Foru titulartasuneko bideei eragiten dieten bizikleta-ibilbideen seinaleztapen-proiektuak gauzatzean bat etorri beharko dira Bizkaiko Bizikleta Bide Foralei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauan eta gainerako arau aplikagarrietan ezartzen denarekin. Horretarako, obrak egiteko baimena eskatu beharko da Bizkaiko Foru Aldundiaren Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiaren Ustiapen Zerbitzuan (Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila).

Bizikleta-ibilbideen seinaleztapen-proiektuak gauzatzean udal-titulartasuneko bideak eraginpean badaude, baimen egokia eskuratu beharko dute.

5. Bidezidorren seinaleztapen-proiektuak gauzatzean Bizkaiko Mendi Federazioak baimendu eta homologatu beharko ditu. Horrez gain, bidezidorren seinaleztapena nola gauzatzen den ikuskatuko du, erabilitako seinaleak uniformeak direla bermatzeko. Azkenik, natura gunearekiko erasoak eta ikus-inpaktuak minimizatuko dira. Eskaerak eta kontsultak honako helbide elektroniko honetan egin ahalko dira:

— https://bmf-fvm.org/senderos/documentacion-senderos/

Bidezidorretarako proiektuok berdin izan beharko dute Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren baimena. (Euskal Autonomia Erkidegoan mendi-ibiliak antolatu eta normalizatzeko apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuaren 9.1 artikulua) BMF-FVM Bizkaiko Mendizale Federazioaren behin-behineko matrikula-esleipena jaso ondoren.

6. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.

7. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xede betetzea.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

5. oinarria.— *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak*

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:

a) Diruz lagun daitezkeen 4.1a) egitateetarako:

1) Aurkeztutako baliabide bakoitzeko seinaleztapenaren azterlan bat eta analisi bat egiteko enpresa bat edo profesional autonomoak kontratatzeko kostuak.

2) Kokapenak, seinale-mota, diseinu-proposamen bat eta seinaleztapena ezartzearen ondoriozko kostuak (Bizkaian indarrean dagoen araudiaren arabera) definitzen dituen seinaleztapen-proiektu bat gauzatzeko kostuak eta, hala dagokionean, obraren zuzendaritza-kostuak.

3) Proiektua ezartzeko behar diren aplikazio grafikoak, piktogramak eta seinaleak diseinatzeko enpresa bat edo profesional autonomoak kontratatzeko kostuak.

4) Instalaziorako behar den obra egiteko kostuak, eta seinaleak jartzeko edo lehendik dagoen kartelak kentzeko zerbitzuak

b) 4.1.b) oinarrian diruz lagundu daitekeen egitaterako: enpresa bat edo profesional autonomo batzuk kontratatzeko kostuak, seinaleztapenaren azterketak eta analisiak egiteko.

2. Instrukzio-organoak uste badu gastu-aurrekontua gehiegizkoa dela antzeko gastuen merkatuko batez besteko kostuarekin alderatuta, diruz lagundu daitekeen oinarria murriztu ahal izango du gastu doitu eta proportzionatutzat jotzen denari dagokion zenbatekoan. Murrizketa hori gertatzen bada, hala jasoko da deialdiaren ebazpenean.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz laguntzeko moduko gastua izango da erakunde onuradunak benetan ordaindu badu eta ezin badu berreskuratu edo konpentsatu.

4. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko:

a) Enpresen kasuan, merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin eta sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak bete gabe.

b) Diru-laguntzaren xede den jarduera nahiz proiektuarekin argi eta garbi identifikatu ezin diren gastuak edo/eta deialdian ezarritako epean egiten ez direnak.

c) Seinaleztapena kontserbatzekoak, seinaleztapenaren ikusgaitasuna mantentzeko gastuak, ez eta aldian-aldian berritu behar diren baimenetatik eratorritakoak ere.

d) Zergak eta tasak, oinarri bereko 3. epigrafean BEZari buruz xedatutakoa izan ezik.

5. Dena dela, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean 9/2017 Legea) kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaile ezberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

6. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

7. Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.2 artikuluak xedatutakoaren arabera, egindako gastutzat joko da oinarri hauetan zehaztutakoari jarraikiz, justifikazio-aldia amaitu baino lehen egiaz ordaindutakoa.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

6. oinarria.— *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua*

1. Diruz laguntzeko gehieneko oinarria 80.000 euro izango da «korridore turistikoak» seinaleztatzeko proiektuak gauzatzeko lehentasunezko ikono turistikoak baitira Bizkaiko Seinaleztapen Turistikorako Proposamen Estrategikoaren arabera (ikus eranskina).

Seinaleztatzeko diren gainontzeko baliabide turistikoetarako, diruz laguntzeko gehieneko oinarria 30.000 eurokoa izango da.

2. Diru-laguntzen zenbatekoa, diruz lagundu daitekeela irizten zaion oinarriari portzentaje hauek aplikatuta lortuko da:

Kategoria Categoría	Laguntzaren gehieneko % % máximo de ayuda		
	0-34 Puntu / Puntos	35-69 Puntu / Puntos	70-100 Puntu / Puntos
Proiektuari lotutako gastuak Gastos vinculados al proyecto	0	70	90

7. oinarria.— *Aurrekontuko zuzkidura*

1. Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak, guztira 300.000 euro, jarraian zerrendatuko diren aurrekontu-partiden kontura ordainduko dira; ondoren adierazten diren estimatutako kopuruetan banakatuko dira, eta haien muga partida bakoitzean ezarritako guztizko kopurua izango da:

Urtekoa	Aurrekontuko partida	Zenbatekoa (€)
2023	0808/432109/751.00/2018/0034	200.000
2023	0808/432109/743.00/2018/0034	25.000
2023	0808/432109/732.99/2018/0034	75.000

2. Aurrekontuko partidei esleitutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira. Onartzen diren eskabideen arabera —eta erakunde onuradunen izaera juridikoak eta diruz lagundutako gastuen kontzeptuak askotarikoak izan daitezke—, aurrekontuko partidei esleitutako baliabide ekonomikoak partiden artean egokitu ahal izango dira gastua aldatzeko espedienteen bidez edo espedienteen bidez. Horretarako, ez da beharrezkoa izango foru-dekretu hau aldatzea, betiere partiden zenbateko osoak ezarritako muga gainditzen ez badu. Organo emaileak argitaratuko du behin betiko banaketa emakida ebazpenaren aurretik deialdiaren bitarteko berberetan. Publizitate horrek ez du esan nahi eskari berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ere ebazteko epe berria hasiko denik.

3. Deialdi honetan ageri den gehienezko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da eta, beraz, 5/2005 Foru Araua garatzeko dirulaguntzen erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren (aurrerantzean 34/2010 Foru Dekretua) 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako foru-dekretu baten bidez, kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu behar izango da.

4. 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrekontu zuzkiduraren zenbateko osoa gehienez ere zenbateko osagarri honekin handitu ahalko da 100.000 euroak:

a) Edo zenbateko osagarria dagoenean eta zenbateko hori deialdi batzuentzat aurreikusitako zenbateko txikiagorekin ebatzitako aurreko deialdietatik datorrenean.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

b) Edo emandako dirulaguntzak baino zenbateko txikiagoengatik aurreko deialdietatik eratorritako betebeharrak aitortu edo likidatu direnean.

c) Edo honakoak onetsi direlako eskuragarri dauden kreditu handitzea dagoenean:

1) Kreditu handitzeak.

2) Kredituak sortzea.

3) Kredituak sartzea.

Zenbateko osagarriaren eraginkortasuna kreditu eskuragarritasun deklarazioaren baldintzapean egongo da; deklarazioa dirulaguntzaren emakida ebatzi aurretik egin beharko da. Handitze hori organo emaileak baimenduko du eta eskuragarri dauden kredituen deklarazioa argitaratu beharko du emakida ebazpenaren aurretik deialdiaren bitarteko berberetan. Gainera, publizitateak ez du esan nahi eskari berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ere ebazteko epe berria hasiko denik.

5. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan, foru-dekretu hau aldatu beharrik gabe.

II. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

8. oinarria.— *Araubide juridikoa*

1. Deialdi honetan ezarritako dirulaguntzak araudi honekin bat arautuko dira: oinarri hauek, 5/2005 Foru Araua, 34/2010 Foru Dekretua, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

9. oinarria.— *Organo eskudunak*

1. Dirulaguntza-eskabideak Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zerbitzuak antolatu, ebaluatu eta izapidetuko ditu, Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko. Zuzendaritza Nagusiaren agindupean.

2. Espedienteak ebaztea Ekonomia Sustatzeko foru-diputatuari dagokio, instrukzio-organoak eta Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiko titularrak proposatuta.

10. oinarria.— *Arau-hausteak eta zehapenak*

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatzen dena izango da.

2. Aplikatu beharrekoa izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean 39/2015 Legea) ezarritakoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Eusko Legebiltzarraren otsailaren 20ko 2/1998 Legean aurreko manuari kontra egin gabe xedatzen dena.

11. oinarria.— *Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea*

1. Jarraian aipatzen diren kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako dirulaguntza, dirulaguntza ordaindu den unetik itzultzea erabakitzen den datara bitartean dagozkion berandutza-interesak, eta, hala badagokio, galdu egingo da dirulaguntza kobratzeko eskubidea.

a) Oinarri hauetan, emakidaren ebazpenean edo aplikatu beharreko araudian ezarritako betebehar edo baldintzaren bat betetzen ez denean.

b) 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

2. Itzuli beharreko diru-kopuruak zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira, ondorio guztietarako.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

3. Itzuli beharreko zenbatekoei aplikatu beharreko berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

4. Dirua itzultzeko prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

5. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

a) Dirulaguntza ematea eragin zuen proiektuaren gastua ez bada xedatzen deialdian ezarritako epean, emandako dirulaguntza osoa galduko da.

b) Dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketaren gastuaren zati bat soilik xedatzen bada deialdian ezarritako epean, galdu egingo da xedatu ez den zatiari dagokion dirulaguntza, betiere xedapen partzial horrek diruz lagundutako jarduketaren helburua lortzea eragozten ez badu. Aurrekontuarekiko murrizketa bat dakarren gastua oso-osorik xedatzea ez da izango ez-betetzea.

c) Jarduketa gauzatzeko epeak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, berandutze-interesekin batera. Hala ere, jarduketak ez badira amaitu epe orokorrean, baina zatiren bat epe barruan egin bada, epe barruan egin ez den zatiaren dirulaguntzaren zenbatekora mugatuko da itzultzeko betebeharra, baldin eta gauzatze partzial horrek ez badu eragozten jarduketaren xedea lortzea.

d) Ekintzak edo gastuak gauzatu edo justifikatzean ez-betetze partziala gertatzen bada, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera zehaztuko da, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzen erakundea eta ez-betetze maila kontuan hartuta.

e) Gehiegizko finantzaketa gertatzen bada, aldi berean beste laguntza batzuk jaso direlako –5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan jasotako balizkoa–, behar denaren gainetik jasotako kopurua itzuli beharko da, eta kopuru horri dagokion berandutze-interesa ezarriko zaio.

f) Eskaera baloratzeko erabili ziren elementuak desbideratu edo bete ez badira, emandako dirulaguntza oso-osorik ala zati batean galduko da, elementuen garrantzia eta dirulaguntza ematean edo zenbatekoan eragina kontuan hartuta.

g) Hedapen, gardentasun, hizkuntza koofizialen erabilera, genero berdintasun eta bestelako gizarte politika betebeharrak betetzen ez badira kobratzeko eta/edo itzulketa partziala jasotzeko eskubidea galduko da gehienez ere emandako dirulaguntzaren % 10eko zenbatekoan. Kasu bakoitzarentzat adierazitako gehieneko mugaren barnean emandako dirulaguntzaren ehunekoa zehazteko proportzionaltasun printzipioa aplikatuko da honako irizpideen arabera: bete ez diren betebeharrak, horien tamaina, onuradunak horiek bete edo bete ez dituen, ez betetzearen arrazoiak eta ez betetze horiek nola eragiten duten helburuak lortzean, jarduera egitean, proiektua egikaritzean edo dirulaguntzaren emakida oinarritzen duen jokaera izatean.

h) Oinarri hauetan ezarritako azpikontratazioaren baldintzei buruzko betebeharrak eta gainerako betebeharrak betetzen ez badira, emandako dirulaguntza osorik edo zati batean galduko da, oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta, berariazko aurreikuspenik ezean, proportzionaltasun-irizpidearen arabera finkatuko da itzuli beharreko zenbatekoa, ez-betetzeak lortu nahi den helbururako duen garrantziaren eta interes publikorako duen kaltearen arabera.

12. oinarria.— *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea*

1. Onuradunak berak Administrazioaren aurretiazko errekerimendurik gabe egindakoa da borondatezko itzulketa.

2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu 5/ 2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta pertsona edo erakunde onuradunak behin betiko itzulketa benetan egin duen unera arte.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

3. Onuradunak berak bere borondatez itzuli nahi badu dirulaguntza, ordainketa-gutuna erabili beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean eskatu eta gero.

III. TITULUA

DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

13. oinarria.— *Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea eta ondorengo izapideak*

1. Dirulaguntza-programa honetan parte hartu nahi duten pertsonek konpromisoa hartuko dute Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual) dirulaguntza jasotzeko eskaera formalizatzeko, dokumentazioa bidaltzeko, justifikazioak egiteko, errekurtsoak jartzeko, alegazioak egiteko, dagoeneko irekita dauden espedienteei buruzko aldaketak aurkezteko eta edozein izapide egiteko. Izan ere, kontuan izanik erakundeon gaitasun ekonomiko eta teknikoa eta haien dedikazio profesionala, ulertu behar da bermaturik dutela behar diren bitarteko teknologikoak eskuratu eta erabiltzeko modua, 39/2015 Legearen 14. artikuluarekin bat etorrita.

2. Interneten aurkeztu behar dira eskaerak, «Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtuala» atalean, Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orri instituzionaleko egoitza elektronikoan.

3. Bulego birtualean sartzeko, bertan adierazten den indarreko araudiaren arabera onartutako identifikazio eta sinadura elektronikoko edozein bide erabili ahal izango da. Bitarteko horiei esker, eskaerak egin daitezke pertsona juridikoen ordezkari gisa. Identifikazio eta sinadura elektronikorako B@kQ txartela erabili nahi izanez gero, jakinarazten da Ekonomia Sustatzeko Sailaren egoitzan eskura daitekeela (Orueta apezpikua 6, Bilbo).

4. Eskabidea aurkezteko ezinbestekoa izango da pertsona hori Ekonomia Sustatzeko Sailaren erakunde eta pertsona fisikoen erregistroan alta emanda egotea (erregistro hori Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 14ko 109/2016 Foru Dekretuan araututa dago). Egoera horretan ez badago, pertsona edo erakunde horrek inskripzio-eskabidea bete beharko du bulego birtualean, dirulaguntza-eskabidea izapidetu baino lehen.

5. Eskabideekin batera, hurrengo oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar da, bulego birtualean dagoen agiriak eransteko sistema erabilita. Era berean, eskabide horietan eskatutako informazioa eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dira.

6. Hona eskabideak aurkezteko epea: 2023ko martxoaren 20ko 08:30etik 2023ko ekainaren 20ko 13:30era.

14. oinarria.— *Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa*

1. Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztutako eskabideak bulego birtualaren bidez bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikoen araberakoak izango dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita.

2. Eskabidea aurkeztean, erantzukizunpeko adierazpena sinatuko da, erakunde eskatzailearen baimenekin eta konpromisoekin batera, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren formularioaren arabera.

3. Era berean, erakundeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko egoera-aitorpen bat sinatuko du, eta bertan adieraziko du BEZak kostu erreala eta efektiboa dakarkion, osorik edo zati batean, edo, aitzitik, zerga-araudi aplikagarriaren arabera berreskuratu edo konpentsatu dezakeen. Aitorpena Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualeko formularioaren arabera egingo da. Erakundeak adierazitako datuak Bizkaiko Foru Ogasunarekin egiaztatuko dira.

4. Erakunde bakoitzak seinaleztatu nahi dituen baliabide adina eskabide aurkeztu ahal izango ditu.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

Eskabide batean proiektu bat baino gehiago jasotzen bada, aurrekontu handiena duen proiektua bakarrik hartuko da kontuan.

5. Eskariekin batera agiri administratibo eta tekniko hauek aurkeztu beharko dira:

a) Dokumentazio orokorra:

1) Jardueren memoria honako eduki honekin:

1.1) Diruz lagun daitekeen 4.1.a) oinarriko egitaterako: erakunde eskatzaileak egin duen seinaleztapen-proposamena. Bertan, osotasunean, seinaleztapen-beharrak, arazoak eta dekretu honetako helburuak betetzeko eskaeran aurreikusitako jarduketak deskribatu beharko dira.

1.2) Diruz lagun daitekeen 4.1.b) oinarriko egitaterako, erakunde eskatzaileak egindako proposamena. Proposamenak garatuko ditu mugikortasun turistiko jasangarrirako Eranskinean dauden baliabide turistikoen gainean azterlanaren edo proiektuaren ildo nagusiak. Seinaleztapen-beharrak, jasangarritasunari dagokionez lortu nahi diren hobekuntzak eta bideragarritasuna deskribatuko dira.

2) Memoria ekonomikoa honako zehaztasun hauekin:

2.1) Proiektua gauzatzeko eta seinaleztapen-azterlanak garatzeko gastuen zerrenda, kontzeptuen arabera banatuta. Bidezkoa bada eta gastu horiekin lotuta badaude, eskatu diren aurrekontuak sartuko dira.

14.3. oinarriaren arabera, eskaera egiten duen unean erakundeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) buruzko egoera-aitorpenean adierazitakoarekin bat etorriz, honako hau egingo da:

2.1.1) Gastuek Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne hartuko dute, baldin eta diruz lagundutako jarduerara soilik bideratutako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeari edo inportatzeari badagozkio, eta jarduera hori EZ bada eragiketa lotu eta salbuetsi gabea; beraz, BEZa kostu erreal eta efektiboa da erakundearentzat.

2.1.2) Gastuetan ez da BEZa sartuko, guztiz berreskuratu edo konpentsatu badaiteke.

2.1.3) Gastuetan BEZaren zati bat sartuko da erakundearen jarduera hainbanatze-arauari lotuta dagoenean. Kasu horretan, erakundeak berreskuratu edo konpentsatu ezin duen BEZaren zatia sartuko da.

2.2. Aurrez ikusitako diru-sarreren zerrenda; berariaz identifikatuko dira proiektu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk, bai eskatutakoak, bai eskuratutakoak.

3) Hartzekodunaren fitxa behar bezala beteta, eskaera lehenengoz egiten dutenentzat bakarrik, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren hartzekodunen fitxategian erregistratuta egon arren, banku-kontuko edo sozietatearen egoitzako daturen bat aldatu dutenentzat ere. Eskabideak aurkezteko, Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualean agertzen den eskabide-eredua erabiliko da.

4) Hala badagokio, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak kontratu txikirako zehazten diren zenbatekoak gainditzen dituenean.

b) Diruz lagun daitekeen 4.1.a) oinarriko egitateetarako berariazko dokumentazioa.

1) BFAko errepide sarean seinale turistikoak jartzeko obra-baimena, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiaren Ustiapen Zerbitzuak emana. Diru-laguntzaren xedea eraikuntza-proiektua egitea bada, bideragarritasun-txosten bat aurkeztu ahal izango da, Bizkaiko Errepideei buruzko 5/2021 Foru Arauaren 47. Artikuluaren arabera, eta, prest dagoenean, aurkeztu egin behar da nahitaezko baimena lortzeko.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

2) Errepide foraletan bizikleta-ibilbideak seinaleztatzean, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiaren Ustiapen Zerbitzuaren baimena.

Udal-bideetan bizikleta-ibilbideak seinaleztatzen direnean, dagokion udal-organo eskudunak emandako baimena.

3) Bidezidorren seinaleetan:

— BMF-FVM Bizkaiko Mendizale Federazioaren behin-behineko baimena (behin-behineko matrikula-esleipena), Euskal Autonomia Erkidegoko bidezidorretan homologatutako seinaleak jartzeko. (79/1996 Dekretua, 1996ko apirilaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan mendi-ibiliak antolatu eta normalizatzeko dena).

— Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren baimena, proiektatutako jarduketak hasteko.

Bidezidorretan seinaleak jartzeko baimena Bizkaiko Mendi Federazioari eskatuko zaio (BMF-FVM), eta, behin-behineko matrikula-esleipena jaso ondoren, proiektuan aurreikusitako jarduerak hasteko baimena eskatu beharko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari. (Euskal Autonomia Erkidegoan mendi-ibiliak antolatu eta normalizatzeko apirilaren 16ko 79/1996 Dekretuaren 9.1 artikulua).

4) Bizkaiko Foru Aldundiaz bestelako titularra duten bideetan seinaleak jartzeko, azpiegitura horren titularraren baimena izan beharko da, seinaleztatu beharreko ibilbideek behar den jarraitutasuna izan dezaten.

b) atalean eskatzen diren baimenei dagokienez, dirulaguntza eskatzen denean baimena eskatu izana egiaztatzea nahikoa izango da. Dena den, eskaera ez da baimena eskuratu arte ebatziko; bien bitartean, beste erakunde batzuen eskaera osoak eta zuzenak aztertu eta ebatziko dira, nahiz eta beranduago aurkeztu dituzten. Nolanahi ere, baimen egokiak eskuratzea ezinbestekoa izango da proiektua egikaritzen hasteko, eta 25. oinarrian ezartzen den epean amaituko da.

6. Aurreko 5. epigrafean eskatutako dokumentazioaz gain, eskabideak aurkezteko epean, erakundeak esleipen ekonomikoaren jarraibideetan adierazitako puntuazioa lortzeko egokitzat jotzen dituen agiriak eta datuak aurkeztuko ditu. Epe horretan behar den informazioa ematen ez bada, ez dira ebaluatuko esleipen ekonomikorako jarraibideak.

7. Ekonomia Sustatzeko Sailak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren bidez eta/edo dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, aurkeztu diren eskabideen administrazio-izapideak egiteko eskatutako pertsona eta erakunde interesdunen datuak egiaztatu eta kontsultatuko ditu, 39/2015 Legearen 13., 28. eta 53. artikuluetan aitortutako eskubideei kalterik egin gabe.

Laguntza-eskaerak berekin ekarriko du beste bitarteko batzuen bidez beste administrazio publiko batzuetatik informazio egokia lortzeko baimena, baldin eta arrazoi teknikoengatik ezin bada lortu elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez.

Arrazoi teknikoak direla eta, ez bada posible informazioa zuzenean beste administrazio batzuetatik eskuratzea, Ekonomia Sustatzeko Saileko Ekonomi Sustapen Saileko Kanpo Sustapen eta Turismo Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango dizkio.

15. oinarria.— *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea*

1. Eskaerak ez badira elektronikoki formalizatzen, ezarritako estandarrak eta formatuak betetzen ez badituzte, eskakizun guztiekin osatzen ez badira edo foru dekretu honen 14.5 oinarrian eskatutako agiriren bat falta bada, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko. Hala egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertuko da, eta artxibatu egingo da, dagokion ebazpena eman ondoren.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

2. Organo instrukzio-egileak informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du aurkeztutako proiektuaren diruz lagun daitekeen oinarria behar bezala ebaluatzeko, baina horrek ez du eraginik izango aldez aurretik eskabideari esleitutako hurrenkera-zenbakian.

16. oinarria.— *Dirulaguntza emateko prozedura*

1. Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokarik gabeko araubidean izapidetuko da, eta funtsak eta eskabideak (osorik eta zuzen beteta) hurrenkeraren arabera banatuko dira, betiere deialdian ezarritako baldintzak betetzen badira, erabilgarri dagoen aurrekontua agortu arte edo deialdiaren indarraldia amaitzen den egunera arte.

2. Eskaria zuzena izango da Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualeko eredu normalizatuan egin bada deialdi horretarako, eta datuak bat badatoz eskatutakoarekin.

3. Eskaria osatuta egongo da bi baldintza hauek betetzen direnean:

a) Organo izapidegileak eskuragarri izatea oinarri hauetan adierazitako informazio guztia eta dirulaguntzen onuradun izateko betekizunak betetzen direla ebaluatzeko ezinbestekoa, bai eskariarekin entregatu delako, bai eta organo izapidegileak jada beste bat baduelako eskatzailearen beste espedienteetan edo 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan aipatutako agiriak edo datuak direlako eta elkarreragingarritasun zerbitzuek berariaz eskuratzeko baimena eman dutelako,

b) Berari atxiki zaiolako eskariarentzat beharrezkoa den dokumentazioa jasotzen duen oinarrian dirulaguntza jaso dezakeen egitatea ebaluatzeko ezinbestekotzat jotzen den dokumentazioa.

4. Eskaria oker badago eta zuzendu beharra badu aurreko bi apartatuetan deskribatutakoarekin bat etorriz, eskariaren izapideak egiteko agindua finkatzeko eguna eta ordua izango da interesdunak Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean eskariko akatsak edo omisioak zuzentzen dituena. Eskakizun hori betetzen ez bada edo osorik zuzentzen ez bada, ezetsi egingo da aurretiazko ebazpen baten bidez. Ebazpen hori, halaber 39/2015 Legearen 68.1 eta 21. artikuluetako terminoetan emango da.

17. oinarria.— *Esleipen ekonomikorako jarraibideak. Intzidentzia-faktoreak.*

1. Proiektuak esleitzeko, honako faktore hauek aplikatuko dira:

Faktoreak Factores	Gehieneko puntuazioa Puntuación máxima
Baliabide turistikoaren seinaleak errepideetan Señalización en carreteras del recurso turístico	20
Seinaleztatuko den baliabide turistikoaren lehentasuna: Prioridad del recurso turístico a señalizar distribuyéndose: 0L/P0 = 60 puntu 1L/P1 = 45 puntu 2L/P2 = 40 puntu 3L/P3 = 35 puntu 4L/P4 = 30 puntu	60
Baliabide turistikoaren seinaleak oinezkoentzat eta/edo bidezidorrak Señalización peatonal y/o senderos del recurso turístico	5
Bidezidorrak eta/edo bizikleta-ibilbideak geoerreferentziatzea Georreferenciación de senderos y/o rutas ciclistas	10
Sormenezko berrikuntza bidezidor eta/edo bizikleta-ibilbideen seinaleetan Innovación creativa sostenible en señalización de senderos y/o rutas ciclistas	5

2. Taulan adierazitako faktoreen arabera emango zaizkie puntuak eskabideei. Aurreko taulan adierazten da zer puntuazio lor daitekeen gehienez faktore bakoitzean.

3. Gutxienez 35 puntu lortzen dituzten eskabideak bakarrik joko dira diruz launtzekotzat.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

18. oinarria.— *Ebazpena*

1. Espedientearen instrukzioa amaitutakoan, instrukzio-organoak ebazpen-proposamena egingo du, eta Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiko titularrari helaraziko dio. Azken horrek, era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen-proposamena, eta hark dagokion foru-aginduaren bidez ebatziko du. Ebazpenean erabakiko da bai dirulaguntzak ematea, bai ezestea edo ez ematea.

2. Ebazpenak, gutxienez, hartutako ebazpenaren oinarriak jasoko ditu, bai eta, kasuen arabera, emandako zenbatekoa edo ezesteko edo ez emateko arrazoiak ere.

3. Dirulaguntza emateko ebazpenean, baldintza bereziak ezarri ahal izango dira, baldin eta uste bada ezen, proiektuen izaera berezia edo gertatzen diren beste inguruabar batzuk direla bide, egoki dela halako baldintzak ezartzea, hartara kasu bakoitzari egokitzeko eta aplikatzeko foru-dekretu honetan edo aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedaturikoa.

4. Hartutako ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

5. Ebazpena jakinarazi ondoren, hamar (10) eguneko epea izango dute onuradunek ebazpena onartzeko, eta epe hori berenberegiko adierazpenik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

6. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsitzat joko da, administrazio-isiltasuna dela eta.

19. oinarria.— *Errekurtsoak*

1. Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta, 39/2015 Legearen 114., 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesdunak aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegiaren aurrean –txandaren arabera dagokiona–, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta, kontuan harturik zer ezartzen duen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

3. Ezin izango dira bi errekurtsook aldi berean jarri.

20. oinarria.— *Dirulaguntzari uko egitea*

1. 34/2010 Foru Dekretuaren 48.3. artikuluan arautzen denarekin bat, onuradun gertatu den pertsona batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza ematen duen organoak erabaki dezake zerrendan hurrengo datozen eskatzaileei ematea (hurrenkeraren arabera), baldin eta nahikoa kreditu geratu bada aske kasuan kasuko eskabideei erantzuteko.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die pertsona edo erakunde interesdunei, dirulaguntzaren proposamena onar dezaten, hamar (10) egun balioduneko epean; epe hori ezin da luzatu. Behin pertsona edo erakunde eskatzaileek proposamena onartu ondoren, administrazio-organoak dirulaguntza emateko egintza emango du, eta haren jakinarazpena egingo du.

3. Uko egitea aurkezteko gehienezko epea hamar (10) egun balioduneko izango da, interesdunari dirulaguntzaren proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igarota, hortik aurrera egindako edozein uko egite dirulaguntza emateko baldintzak ez betetzat joko da.

21. oinarria.— *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea*

1. Pertsona onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, baimena eska diezaioke Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, diruz lagundutako jardueraren ebazpenean aldaketak egin ahal izateko, hala nola, finkatutako epeak luza-

eek: BAO-2023a054-(I-310)

tzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen ekintzak aldatzea. Aldaketa horiek baimenduko dira ezohiko inguruabarrak daudenean edo jarduera ondo gauzatzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideei kalte egiten ez bazaie. Aldaketa-eskaerak diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino hilabete bi (2) lehenago aurkeztu beharko dira gutxienez.

2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ofizioz alda dezake dirulaguntza emateko ebazpena, onuradunari entzunaldia eman ondoren eta funtsak aplikatu aurretik; horretarako, bi baldintza hauek bete behar dira: batetik, laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzen aldaketek ezin izango dute eragotzi edo oztopatu laguntzaren bidez lortu nahi zen interes publikoa, eta, bestetik, ezingo zaio kalte ekonomikorik eragin onuradunari.

3. Dirulaguntzaren onuradunak, berak aurkeztutako justifikazioan, adierazten badu aldaketa batzuk egon direla dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar lezaketenak, eta aldaketa horiek guztiak onartzeko ez bada bete aurretik bete beharreko baimen administratiboko izapidea, orduan, dirulaguntza eman duen organoak onartu egin dezake aurkeztutako justifikazio hori, betiere onartze horrek ez badie kalterik eragiten hirugarrenen eskubideei; hala ere, horrek ez du salbuesten pertsona onuraduna 5/2005 Foru Arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

22. oinarria.— *Emandako dirulaguntzen publizitatea*

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa beteko da. Horretarako, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean emandako dirulaguntzak argitaratuko dira artikulu horretan xedatutakoaren arabera. Halaber, dirulaguntza eman den urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen, Ekonomia Sustatzeko Sailak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu deialdi publiko honen ondorioetarako emandako dirulaguntzak, honako hauek adierazita: deialdia, aurrekontuko zer programari eta krediturri egozten zaizkion, onuradunaren izena edo sozietate-izena eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia, emandako zenbatekoa, dirulaguntzaren helburua edo helburuak, eta diruz lagundutako programak edo proiektuak. Urte askotako dirulaguntzen kasuan, emandako zenbateko osoa eta urtekoen banaketa.

23. oinarria.— *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea*

1. Onuradunek diruz lagundutako jarduketaren finantzaketa publikoaren publizitatea egin beharko dute. Horretarako, lagundutako jarduketen zabalkunde publikorako egiten dituzten material, argitalpen eta ekitaldi guztietan, jasotako laguntza aipatu beharko dute eta Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa jarri beharko dute, erraz ikusteko leku batean.

2. Era berean, onuradunek adierazi beharko dute jarduketa diruz lagundua dela, sortutako euskarri fisikoetan, aplikagarria den araudiak debekatzen ez badu, euskaraz eta gaztelaniaz honako adierazpen hau jasoz: «Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du proiektu hau». Beren beregi debekatuta dago beste edozein esaldi edo irudi erabiltzea Bizkaiko Foru Aldundiari erreferentzia egiteko.

Dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi aurretik ere egin diren diruz lagundutako jarduketen kasuan, erakunde onuradunek nahitaez zabaldu beharko dute jasotako dirulaguntzaren izaera publikoa, arestian deskribatutako moduan, bai sortutako euskarri fisiko guztietan, salbu eta aplikatzekoa den araudiak debekatzen badu, bai eta sortutako material edo geroko argitalpenetan, web-orrian, sare sozialetan, komunikabideetan edo erakundeak egokitzat jotzen duen beste edozein modutan ere, betebeharra bete dela justifikazioan egiaztatuz.

24. oinarria.— *Jakinarazpen elektronikoa*

1. Erakunde interesdunei egindako jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

2. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan agertuz egingo dira (https: // www.ebizkaia.eus) araudi bi hauetan ezarritakoaren arabera: Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa, eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 4841/2016 Foru Agindua, ekainaren 6koa, jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa.

3. Egindako jakinarazpen elektronikoak eskuragarri jartzeari buruzko abisuak eskabidean aurkeztutako helbide elektronikora bidaliko dira. Horretarako, eskaera bete ondoren, ofizioz eskumena duen organo edo unitateak alta emango dio helbide elektroniko horri Bizkaiko Foru Aldundiaren prozeduren katalogoko dirulaguntzen prozedura honetarako aipatutako egoitza elektronikoaren abisu-sisteman. Abisu horiek ez dute, inola ere, jakinarazpen-ondoriorik izango, eta horiek ez egoteak ez du eragotziko jakinarazpena guztiz baliozkotzat jotzea.

4. Jakinarazpenak egindakotzat joko dira edukira sartzerakoan, eta ezetsitzat jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igarotzen direnean edukira sartzerik gertatu ez denean.

IV. TITULUA
GAUZATZEA, JUSTIFIKATZEA ETA KONTROLA

25. oinarria.— *Gauzatzeko epea*

Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean hasi eta amaituko dira, eta epea luzaezina da. Hala eta guztiz ere, 2024ko martxoaren 31ra arte gauzatzea onetsiko da, betiere, behintzat, 2023an hasi bada edo erakundea publikoa izanez gero, jarduera burutzea Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari lotutako kontratuaren mende egonda, lizitazio-prozedura hasi bada.

26. oinarria.— *Justifikazio-epea*

1. Onuradunek diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak bete izanaren eta aurreikusitako helburuak lortu izanaren azken justifikazioa aurkeztu beharko diote instrukzio-organoari, oinarri hauetan ezarritako moduan. Justifikazioa 24ko urtarrilaren 1etik otsailaren 29ra bitartean aurkeztuko da. Hala ere, jarduera amaitzen bada, 25. oinarrian xedatutakoaren arabera, 2024ko lehen hiruhilekoan, justifikazioa 2024ko maiatzaren 31ra arte aurkeztu ahal izango da.

2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak azken justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatu ahal izango du, gehienez ere haren erdia, betiere alegatutako inguruabarrek hala gomendatzen badute eta horrekin hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Eskaera eta luzapenari buruzko erabakia justifikazio-epea amaitu baino lehen egin beharko dira. Alegatutako arrazoia gertatu eta berehala eskatu beharko da, eta, nolanahi ere, justifikazio-epea amaitu baino gutxienez hilabete bi (2) lehenago. Berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

3. Justifikazioa egiteko epea igaro eta dagokion instrukzio-organoaren aurrean ez bada aurkeztu justifikaziorik, organo horrek errekerimendua egingo dio erakunde onuradunari, hamabost (15) egun baliodunen epean aurkez dezan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori ezingo da luzatu. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, dirulaguntza itzultzea eskatuko zaio onuradunari eta, gainera, Dirulaguntzen Foru Arauaren 37. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren gainerako erantzukizunak eskatuko zaizkio.

27. oinarria.— *Azpikontratazioaren baldintzak*

1. Honako hau joko da azpikontrataziotzat: onuradunak hirugarren pertsona batekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xedeko jarduera oso-osorik edo zati bat egitea. Azpikontratazioaren kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

2. Onuradunak diruz lagundutako jarduera azpikontratatu ahal izango du, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 100 arte. Azpikontratazio-ehuneko hori egindako azpikontratu guztien baturaren arabera kalkulatzen da.

3. Inola ere ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitu arren jarduera horri balio erantsirik ez dakarkioten jarduerak.

4. Onuradunak ezin izango du inola ere hitzartu diruz lagundutako jarduerak osorik edo partez egitea 5/2005 Foru Arauaren 27.7 artikuluan zehaztutako pertsona edo erakundeekin.

5. Diru-laguntzaren xedea gauzatzea agintzen zaien erakundeek genero-berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako printzipio orokorrak eta betebeharrak errespetatu beharko dituzte.

6. Dena dela, azpikontratazioaren zenbatekoa handiagoa bada 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

7. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

8. Beste batzuekin hitzarturiko jarduera hori dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20tik gorakoa bada, eta zenbateko hori 60.000,00 euro baino handiagoa bada, azpikontratazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Kontratua idatziz egin beharko da.

b) Kontratua egin aurretik dirulaguntza eman duen erakundeak baimena eman beharko du, oinarri arautzaile hauetan ezarri den bezala.

9. Eskabideak proposatutako azpikontratazioaren baldintza nagusiak adierazi beharko ditu, eta Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ebatziko du, bulego birtualean aurkezten denetik hamabost (15) egun balioduneko epean. Epe hori amaitzean ebazpen espresua jakinarazten ez bada, administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da.

28. oinarria.— *Dirulaguntzak justifikatzea*

1. Justifikazio-kontu baten bitartez frogatuko du onuradunak betetzen dituela ezarritako baldintzak eta lortu direla dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak.

2. Dirulaguntzaren justifikazioa Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bidez izapidetuko da.

3. Justifikazio-kontuak honako dokumentazio hau jaso behar du:

a) Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, non egindako ekintzak eta lorturiko emaitzak adierazten diren.

b) Memoria ekonomikoa, Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualeko ereduaren arabera, egindako jardueren kostua justifikatzeko. Honako hauek izango ditu:

1) Diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari egotzitako sarrera eta gastuen egoera. Justifikazio-gastuak bulego birtualaren bidez bidaltzean, sistemak automatikoki sortuko du diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren gastuei buruzko zerrenda.

2) Aurreko 1. atalean adierazitako gastuen egoera orria osatzen duen partida bakoitzerako, diruz lagundutako jardueraren gastuen eta/edo inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa aipatuz, bai eta zenbatekoa, bidaltze-eguna eta, hala badagokio, ordainketa-eguna ere.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

Erakundeak BEZari dagokionez duen egoeraren arabera, honako hau egingo da:

2.1) Gastuek Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne hartuko dute, baldin eta diruz lagundutako jarduerara soilik bideratutako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeari edo inportatzeari badagozkio, eta jarduera hori EZ bada eragiketa lotu eta salbuetsi gabea; beraz, BEZa kostu erreal eta efektiboa da erakundearentzat.

2.2) Gastuetan ez da BEZa sartuko, guztiz berreskuratu edo konpentsatu badaiteke.

2.3) Gastuetan BEZaren zati bat sartuko da erakundearen jarduera hainbanatze-arauari lotuta dagoenean. Kasu horretan, erakundeak berreskuratu edo konpentsatu ezin duen BEZaren zatia sartuko da.

Erakunde onuradunak ekitaldiko hainbanaketaren behin betiko ehunekoa egiaztatu beharko du, baldin eta eskaera egin zuen unean sinatu zuen balio erantsiaren gaineko zergari buruzko egoera-aitorpenean adierazitakoaren berdina ez bada.

3) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten agiriak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, aurreko lerrokadan aipatutako zerrendan jasota daudenak eta ordainketa egiaztatzen duten agiriak. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira. Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualean aurkezteko formatuetan egongo dira.

4) Pertsona bakoitzeko behar bezala akreditatutako eta dagokion erregistro ofizialean inskribatutako tasazio independente baten ziurtagiria, ondasun higiezinak eskuratzen badira.

5) Hala badagokio, adieraziko da zer irizpide erabili diren aurreko 2) apartatuan adierazten diren kostu orokorrak eta/edo zeharkako kostuak banatzeko.

6) Aurreko 1) apartatuan aipatzen den sarreren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko, Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehakatua, baita eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.

7) 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua betetzeko, onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.

8) Aplikatu ez den geldikinik egonez gero, haien eta beraien korrituen itzulketaren ordain-gutuna.

4. Dekretu honetan, gainera, hauek aurkeztu beharko dira:

a) Bidezidorretako seinaleen kasuan, orobat aurkeztu beharko da Bizkaiko Mendi Federazioari bidezidorra behin betiko homologatzeko aurkezturiko eskaera.

b) 4.1.b) oinarriko diruz lagundu daitekeen ekintzarako, benetan egindako azterlana.

c) Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren ereduaren arabera garatutako ekintzen emaitzen panel bat, datu hauek emango dituena, sexuaren arabera bereizita, besteak beste:

— Baliabidearen bisitari-kopurua eta jatorria,

— Egindako jardueraren batez besteko balorazioa,

— Bidezidorren eta/edo bizikleta-ibilbideen geoerreferentziazioaren erabilerari buruzko datuak, hala badagokio.

d) Justifikazioko jarduera-txostenan adierazitakoa betetzen dela egiaztatzen duten txostenak, adierazpenak eta dokumentuak.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

5. Ezarritako gainerako eskakizunak betetzeari buruzko justifikazio-memoria (dirulaguntza zabaltzea, gardentasunaren araudia, ofizialak diren hizkuntzak erabiltzea, berdintasun-generoa, beste gizarte-politika batzuk), Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualeko ereduaren arabera. Horiek betetzen direla egiaztatzeko txostenak, aitorpenak eta dokumentuak erantsiko dira.

29. oinarria.— *Dirulaguntza ordaintzea*

1. Dirulaguntzak eman eta onartu ondoren ordainduko dira, ordainketa aurreratu bakar baten bidez, emandako dirulaguntzaren zenbateko osoarekin eta inolako bermerik eskatu gabe, dirulaguntzari datxezkion jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.

2. Dirulaguntza ordaindu aurretik, egiaztatuko da onuradunek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez direla zordunak dirulaguntza itzultzeagatik. Edozelan ere, egiaztatuko da onuradunak ez daudela honako kasu hauetan: konkurtso-deklarazioa eskatu bada; edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratuak izan badira; konkurtsoan deklaratuta badaude; esku-hartze judizialen menpe baldin badaude; edo Lege Konkurtsalaren arabera desgaituak izan badira eta konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaikuntza-epea artean amaitu barik badago.

3. Egindako egiaztapenen ondorioz, onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu edo itzulketa-prozeduraren bat ebatzia badu, edo aurrez deskribatutako egoeraren bat gertatzen bada, ezingo da dirulaguntzaren ordainketa egin.

4. Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, dirulaguntzaren eskabidean adierazitako kontu korrontera.

30. oinarria.— *Laguntzen bateragarritasuna*

1. Foru-dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baldin eta gastu hautagarri beretarako gehieneko laguntza-intentsitatea errespetatzen bada.

2. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak, foruko sektore publikoko bestelako erakundeek edo hark % 50eko partaidetza edo hortik gorakoa duten erakundeek helburu bererako emandakoekiko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

3. Dirulaguntzen zenbatekoak, bera bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

4. Aurreko muga horietakoren bat gaindituz gero, emandako edo eman beharreko dirulaguntzari soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.

5. Onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela jakinarazi beharko diote Ekonomia Sustatzeko Sailari, horren berri izan bezain laster eta, nolanahi ere, funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen, eta, hala badagokio, egindako itzulketa-gutunaren kopia erantsita. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, itzulketa-prozedura hasteko.

31. oinarria.— *Pertsona onuradunen beste betebehar batzuk*

Honako betebehar hauek izango dituzte laguntzen onuradunek:

a) Dirulaguntza emateko arrazoi den helburu, proiektu, jarduera edo jokaera lortu, burutu, egin edo hartzea.

b) Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren aurrean edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatzea betekizun eta baldintzak betetzen direla, hala badagokio,

eek: BAO-2023a054-(I-310)

baita jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartutako xedea bete dela ere.

c) Oinarri hauetan jasotako hedapen-neurriak hartzea, hau da, «Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea» izeneko oinarrian adierazitakoa betetzea.

d) Aurrekontu ekitaldi batean Bizkaiko Foru Aldunditik gutxienez 100.000 eurokoak diren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeak edo urteko diru-sarreren % 40 foru laguntzak edo dirulaguntza publikoak direnean, baldin eta gutxienez 5.000 eurokoak badira, bete egin beharko dituzte Bizkaiko gardentasunaren otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauko publizitate aktiboaren betebeharrak. Hau da:

1) Aurretik aipatutako mugak gainditu eta hurrengo urtetik aurrera webgunean informazio publiko garrantzitsua argitaratzea modu irisgarrian, doan, egiaz, eguneratuta eta berrerabiltzeko moduan. Datu pertsonalak babestearen arloko legeria errespetatuko da eta euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatuko dira. Horretarako, informazioa euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko da.

2) Informazioa eguneratuta mantentzea gutxienez lau urte naturaletan.

Hauxe da gutxienez onuradunaren informazio publiko garrantzitsua:

1) Erakunde informazioa, antolamendukoa eta plangintzakoa: araudia, funtzioak, antolamendu egitura, organigrama, arduradunen identifikazioa, profila eta ibilbide profesionala.

2) Ekonomikoa, aurrekontukoa eta estatistikoa: administrazio publikoek adjudikatutako kontratuak, kontratu txikiak, administrazio publikoekin sinatutako hitzarmenak, jasotako dirulaguntzak eta laguntza publikoak, aurrekontuak, urteko kontuak, kontu ikuskaritzen txostenak eta arduradun nagusien urteko ordainsariak.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialak erabiltzea hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 13.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat. Hau da:

1) Diruz lagundutako jarduera publiko guztietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.

2) Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako materialetan, argitalpenetan eta bestelako euskarrietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.

f) Genero ikuspegia sartzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Horrek hauxe esan nahi du:

1) Egiaztatzea jarduketetan bete egiten direla 4/2005 Legearen 3. artikuluan adierazitako printzipio orokorrak, egindako azterketa eta estatistiketan lege horren 16. artikuluan xedatutakoa betetzen dela eta zuzenean edo hirugarrenen bidez sortutako hizkuntza, irudi, euskarri eta dokumentuetan hizkuntza sexista erabiltzen ez dela egiaztatzea.

2) Egiaztatzea Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak sustatzen direla eta gardentasun eta ordainsari berdintasun printzipioa betetzen dela.

3) Egiaztatzea zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen

eek: BAO-2023a054-(I-310)

aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

4) Egiaztatu behar da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat datorren berdintasun plan bat dutela, eta benetan aplikatzen dutela.

5) Egiaztatzea bermatzen dela neurriak hartuko dituela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko.

g) Kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiri guztiak ikuskatuta eduki behar ditu onuradunentzat aplikatu beharreko merkataritzako eta sektoreko legeriak ezarritako baldintzetan, bai eta dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako kontabilitateko egoera-orri eta erregistro zehatzak ere; hain zuzen, ekintzak behar bezala egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko.

h) Jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian.

i) Foru arau honen 33. artikuluan jasotako egoeretan jasotako funtsak itzultzea.

j) Baldin eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren inguruabar objektibo edo subjektiboetatik edozein aldatu bada, aldaketa horren berri ematea dirulaguntza eman dionari.

k) Foru Administrazioko organoek edo erakunde laguntzaileak eskatzen dieten laguntza eta dokumentazioa ematea, bai eta, Europar Batasuneko araudiaren arabera, finantza-kontroleko eginkizunak esleituta dituzten organoek ere. Horretarako, honako ahalmen hauek izango dituzte:

1) Egiaztatu beharreko agirietara, euskarri informatikoan dauden programa eta artxiboak barne, iristeko askatasuna.

2) Sarrera librea diruz lagundutako jarduera garatzen den edo dirulaguntzaren kargura finantzatutako eragiketen errealitatea eta erregulartasuna egiaztatzeko aukera ematen duten negozio-lokaletara eta gainerako establezimendu edo lekuetara.

3) Fakturak, agiri baliokideak edo ordezkoak eta eragiketei buruzko beste edozein agiri atxikitzea edo kopia eskuratzea, baldin eta horietan dirulaguntza behar ez bezala lortu, baliatu edo erabili izanaren zantzuak ondorioztatzen badira.

4) Dirulaguntzak kobratu diren edo funtsak erabili diren finantza-erakundeetako banku-kontuetako informazioa eskuratzeko askatasuna.

Laguntza emateko eta dokumentazioa emateko betebehar hori betetzeari uko egitea erresistentziatzat, desenkusatzat, oztopotzat edo negatibotzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, hala badagokio, zehapenen kalterik gabe.

l) Emakumeen eta gizonen arteko genero berdintasunarekin lotutako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko jarduketak egitea eta justifikazio dokumentazioa ematea. Laguntzen ez bada eta dokumentazioa ematen ez bada, urratu egingo dira 5/2005 Foru Arauaren 33.1.f) artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako ezarritako betebeharrak.

m) Deslokalizazioan ez erortzea. Enpresa deslokalizaziotzat jotzen da Enpresak deslokalizatzen direnean foru-sektore publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak ezarritakoa, eta foru-dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzei aplikatuko zaie foru-arau hori.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

ERANSKINA

BIZKAIAN SEINALEZTATU BEHARREKO BALIABIDE TURISTIKOEN SUSTAPENERAKO LEHENTASUNA

Ondoren, Bizkaiko Seinaleztapen Turistikorako Proposamen Estrategikoan oinarrituz aukeratutako, eta sustapen turistikorako lehentasunaren arabera ordenaturiko, baliabide turistikoen taula erakusten da eta zein bidetan hasi litezkeen seinaleztatzen zehazten.

Gainera, lehenengo 10 baliabide turistikoak sustapenerako lehentasunezkoak direla jo behar da, lortu nahi diren «Bizkaiko korridore turistikoa» sortzera bideratuak.

eek: BAO-2023a054-(I-310)

PANEL DE PRIORIDAD Y CATEGORÍAS I SEÑALIZACIÓN DE RECURSOS TURÍSTICOS DE BIZKAIA

P	C	Recurso	Localidad	Estructura territorial	Destino turístico	Tipología	Vía (Salida)
0	A	Guggenheim Bilbao	Bilbao	BILBAO	Bilbao y área metropolitana	Museo	N-637_s14
0	A	Puente Bizkaia	Getxo / Portugalete	GETXO / PORTUGALETE	Bilbao y área metropolitana	Atracción cultural	A-8_s126b-s127 / N-637_s11
0	A	San Juan de Gaztelugatxe	Bemeo	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Parque Natural - Espacio protegido	N-637_s18
0	A	Reserva de la Biosfera de Urdaibai	Playas I Birding I Centro Biodiversidad	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Parque Natural - Espacio protegido	AP-8_s97-S100
0	B	Faro de Santa Katalina	Lekeitio	LEA-ARTIBAI	Costa de Bizkaia	Atracción cultural	AP-8_84
0	B	Cueva Pozalagua	Karrantza	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Atracción natural	BI-636_e-zalla
0	B	Ruta del Flysch	Getxo-Sopela-Barrika	GETXO / URIBE	Costa de Bizkaia	Ruta natural	N-637_s18
0	C	PN Gorbeia	Centro Interpretación I Saldropo I Itzina (Urigoiti)	GORBEIALDEA	Montañas de Bizkaia	Parque Natural - Espacio protegido	A-8_s105 / AP-68_s3-s5
0	C	PN Urkiola	Centro Interpretación I Atxarte I Aramotz	DURANGALDEA	Montañas de Bizkaia	Parque Natural - Espacio protegido	AP-8_s88
0	C	Sierra Salvada / Salto del Nervión	Orduña	ORDUÑA	Montañas de Bizkaia	Atracción natural	AP-68_s5
1	A	Puerto Pesquero Santurtzi	Santurtzi	SANTURTZI	Bilbao y área metropolitana	Núcleo marinero/pesquero	municipal
1	A	Bosque de Oma	Kortezubi	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Atracción natural	BI-2238
1	A	Casa de Juntas y Árbol de Gernika	Gernika	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Atracción cultural	municipal
1	A	Colegiata de Ziortza	Ziortza-Bolibar	LEA-ARTIBAI	Costa de Bizkaia	Atracción cultural	BI-633
1	A	Karpin Abentura	Karrantza	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Atracción natural	BI-630
1	B	Puerto Viejo de Algorta	Getxo	GETXO	Bilbao y área metropolitana	Núcleo marinero/pesquero	municipal
1	B	Casco histórico de Portugalete	Portugalete	PORTUGALETE	Bilbao y área metropolitana	Núcleo histórico-cultural	municipal
1	B	Castillo de Butrón	Gatika	URIBE	Costa de Bizkaia	Atracción cultural	BI-634
1	B	Playas Uribe Kosta	Sopela-Plentzia-Gorliz	URIBE	Costa de Bizkaia	Playas	BI-637-s18a-Ramal 10 / BI-2122 / BI-2704
1	B	Casco histórico de Balmaseda	Balmaseda	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Núcleo histórico-cultural	BI-636
1	B	Centro histórico de Durango	Durango	DURANGALDEA	Montañas de Bizkaia	Núcleo histórico-cultural	BI-623
1	C	Lea Ibilbidea	Munitibar-Mendexa-Lekeitio	LEA-ARTIBAI	Costa de Bizkaia	Atracción natural	municipal
1	C	PN Armañón	Centro Interpretación I El Suceso I Turtzioz	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Parque Natural - Espacio protegido	BI-636 / municipal
1	C	Casco histórico de Areatza	Areatza	GORBEIALDEA	Montañas de Bizkaia	Núcleo histórico-cultural	municipal
1	C	Casco histórico de Otxandio	Otxandio	GORBEIALDEA	Montañas de Bizkaia	Núcleo histórico-cultural	BI-623
1	C	Centro histórico de Elorrio	Elorrio	DURANGALDEA	Montañas de Bizkaia	Núcleo histórico-cultural	BI-633 / N-636
1	C	Casco histórico Orduña	Orduña	ORDUÑA	Montañas de Bizkaia	Núcleo histórico-cultural	BI-625/BI-2521

P	C	Recurso	Localidad	Estructura territorial	Destino turístico	Tipología	Vía (Salida)
2	A	Puerto Deportivo	Getxo	GETXO	Bilbao y área metropolitana	Espacio de ocio y recreo	municipal
2	A	Casco histórico de Plentzia	Plentzia	URIBE	Costa de Bizkaia	Núcleo marinero/pesquero	BI-2704
2	A	Urdaibai Bird Center	Gautegiz-Arteaga	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Atracción natural	BI-2238
2	A	Mundaka y su ola	Mundaka	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Núcleo marinero/pesquero	AP-8_s97-S100
2	A	Casco antiguo y puerto de Bermeo	Bermeo	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Núcleo marinero/pesquero	BI-2235 / BI-631
2	A	Casco histórico de Lekeitio	Lekeitio	LEA-ARTIBAI	Costa de Bizkaia	Núcleo marinero/pesquero	BI-2405 / BI-2238
2	A	Torre Loizaga	Sopuerta	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Museo	BI-2701 / BI-3631
2	B	Playas de Getxo	Getxo	GETXO	Bilbao y área metropolitana	Playas	municipal / BI-3737
2	B	Faro de Gorliz	Gorliz	URIBE	Costa de Bizkaia	Atracción natural	municipal
2	B	Playa de Bakio	Bakio	URIBE	Costa de Bizkaia	Playas	municipal
2	B	Casco histórico de Ondarroa	Ondarroa	LEA-ARTIBAI	Costa de Bizkaia	Núcleo marinero/pesquero	BI-633
2	B	Casco histórico de Markina	Markina	LEA-ARTIBAI	Costa de Bizkaia	Núcleo histórico-cultural	BI-633
2	B	Playa de la Arena	Muskiz	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Playas	A-8_s-136-Ramal 3
2	B	Cuevas de Baltzola	Dima	GORBEIALDEA	Montañas de Bizkaia	Atracción natural	BI-2543
2	B	Necrópolis de argiñeta	Elorrio	DURANGALDEA	Montañas de Bizkaia	Atracción cultural	municipal
2	C	Casco histórico de Larrabetzu	Larrabetzu	URIBE	Costa de Bizkaia	Núcleo histórico-cultural	BI-2713
2	C	Puerto pesquero de Armintza	Lemoiz	URIBE	Costa de Bizkaia	Núcleo marinero/pesquero	municipal
2	C	Conjunto natural de La Arboleda	Trapagaran	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Parque Natural - Espacio protegido	N-634 / BI-3755
2	C	Via Verde Montes de Hierro - Itsaslur	Artzentales - Muskiz	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Atracción natural	BI-3795
2	C	Museo Etnográfico de Orozko	Orozko	GORBEIALDEA	Montañas de Bizkaia	Museo	municipal
2	C	Via Verde Arrazola	Atxondo	DURANGALDEA	Montañas de Bizkaia	Atracción natural	BI-3336
3	A	Txakolingunea - Museo del txakoli	Bakio	URIBE	Costa de Bizkaia	Museo	municipal
3	A	Centro de Biodiversidad de Euskadi (Torre Madariaga)	Busturia	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Atracción natural	BI-2235
3	A	Museo de la Paz	Gernika	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Museo	municipal
3	A	Cueva de Santimamiñe	Kortezubi	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Atracción natural	BI-2238
3	A	Boinas La Encartada	Balmaseda	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Museo	BI-636
3	B	Galerías Punta Begoña	Getxo	GETXO	Bilbao y área metropolitana	Núcleo histórico-cultural	municipal
3	B	Landetxo Goikoa	Mungia	URIBE	Costa de Bizkaia	Atracción cultural	BI-631-s18-ramal 1
3	B	Playas de Laida/Laga	Ibarrengelu	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Playas	AP-8_s97-S100
3	B	Faro de Matxitxako	Bermeo	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Atracción natural	BI-3101
3	B	Puerto Pesquero de Elantxobe	Elantxobe	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Núcleo marinero/pesquero	BI-2237

P	C	Recurso	Localidad	Estructura territorial	Destino turístico	Tipología	Vía (Salida)
3	B	Ferrería El Pobal	Muskiz	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Museo	BI-2701
3	B	Casa de Juntas de Avellaneda	Sopuerta	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Museo	BI-2701 / BI-3602
3	B	Conjunto histórico de Ermitabarri	Zeberio	GORBEIALDEA	Montañas de Bizkaia	Núcleo histórico-cultural	BI-625
3	B	Mirador de Durangaldea Garai - Momoiko nekropolia	Garai	DURANGALDEA	Montañas de Bizkaia	Atracción cultural	BI-3341
3	C	Puerto de Zierbena	Zierbena	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Núcleo marinero/pesquero	N-639
3	C	Casco histórico de Lanestosa	Lanestosa	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Núcleo histórico-cultural	BI-630
3	C	Conjunto monumental de Eleizondo	Zeanuri	GORBEIALDEA	Montañas de Bizkaia	Núcleo histórico-cultural	municipal
3	C	Casco histórico de Ugao-Miraballes	Ugao-Miraballes	GORBEIALDEA	Montañas de Bizkaia	Núcleo histórico-cultural	BI-625
4	A	Museo Euskal Herria	Gernika	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Museo	municipal
4	A	Museo del Pescador	Bermeo	URDAIBAI	Costa de Bizkaia	Museo	municipal
4	A	Museo de la Minería	Abanto-Zierbena	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Museo	municipal
4	B	Andra Mari Galdakao	Galdakao	S/E	Bilbao y área metropolitana	Núcleo histórico-cultural	municipal
4	B	Castillo de Muñatones	Muskiz	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Montañas de Bizkaia	Atracción cultural	N-634
4	B	Muntsarantz Casa Torre (Abadiño)	Abadiño	DURANGALDEA	Montañas de Bizkaia	Atracción cultural	BI-3336
4	B	Museo de Arte e Historia Durango	Durango	DURANGALDEA	Montañas de Bizkaia	Museo	municipal
4	C	Museo Rialia	Portugalete	PORTUGALETE	Bilbao y área metropolitana	Museo	municipal
4	C	Museo del Mar	Santurtzi	SANTURTZI	Bilbao y área metropolitana	Museo	municipal
4	C	Mendibile Jauregia	Leioa	S/E	Bilbao y área metropolitana	Atracción cultural	municipal
4	C	Ekomuseoa	Artea	GORBEIALDEA	Montañas de Bizkaia	Museo	municipal
4	D	Museo de Bellas Artes	Bilbao	BILBAO	Bilbao y área metropolitana	Museo	municipal
4	D	Casco Viejo	Bilbao	BILBAO	Bilbao y área metropolitana	Núcleo histórico-cultural	municipal
4	D	Athletic Museoa	Bilbao	BILBAO	Bilbao y área metropolitana	Museo	municipal
4	D	Azkuna Zentroa	Bilbao	BILBAO	Bilbao y área metropolitana	Atracción cultural	municipal
4	D	Museo Marítima Ría de Bilbao	Bilbao	BILBAO	Bilbao y área metropolitana	Museo	municipal
4	D	Museos Arqueológico, Etnológico e Histórico Vasco	Bilbao	BILBAO	Bilbao y área metropolitana	Museo	municipal
4	D	Palacio Euskalduna	Bilbao	BILBAO	Bilbao y área metropolitana	Atracción cultural	municipal
4	D	Funicular Artxanda	Bilbao	BILBAO	Bilbao y área metropolitana	Atracción de ocio	municipal